

2024

1. hiruhilekoa

# EAEkoekonomiaren hiruhilabetekaria

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

EKONOMIA ETA OGASUN  
SAILA  
*Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza*

DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA  
Y HACIENDA  
*Dirección de Economía y Planificación*



## EAEko ekonomiaren hiruhilabetekaria

|                                      |    |
|--------------------------------------|----|
| LABURPENA .....                      | 3  |
| EKONOMIAREN INGURUNEA .....          | 5  |
| EAE-KO EKONOMIA .....                | 9  |
| Ekoizpena eta enplegua .....         | 9  |
| Barne eta kanpo eskaria .....        | 14 |
| Prezioak, soldatak eta kostuak ..... | 21 |
| Arlo publikoa .....                  | 25 |
| Arlo finantzarioa .....              | 27 |
| Aurreikuspenak .....                 | 33 |

## Irudien aurkibidea

|   |    |
|---|----|
| Munduko ekonomia. BPGa (I) .....            | 5  |
| Munduko ekonomia. BPGa (II) .....           | 7  |
| Enpleguaren bilakaera .....                 | 12 |
| Etxebizitzaren hipoteken bilakaera .....    | 31 |
| 2024ko eta 2025ko aurreikuspenak (I) .....  | 39 |
| 2024ko eta 2025ko aurreikuspenak (II) ..... | 41 |

## Taulen aurkibidea

|   |    |
|---|----|
| Eskaintzaren aldagaiak .....                  | 9  |
| Jardueraren adierazleak .....                 | 10 |
| Eskariaren aldagaiak .....                    | 14 |
| Kontsumo eta inbertsioaren adierazleak .....  | 15 |
| Esportazioak produktuen arabera .....         | 17 |
| Esportazioen helmuga .....                    | 18 |
| Inportazioen jatorria .....                   | 20 |
| Kontsumoko prezioen indizearen banaketa ..... | 21 |
| EAEko kontsumoko prezioen indizea .....       | 23 |

|   |    |
|---|----|
| Hitzarmenetan adostutako soldata igoerak.....                           | 24 |
| Lan kostuak .....   | 25 |
| Tributu itunduen bilakaera (urtarrila-abendua).....                     | 26 |
| Adierazle monetario eta finantzarioak (I) .....                         | 28 |
| Adierazle monetario eta finantzarioak (II) .....                        | 30 |
| Kreditu eta gordailuak.....   | 32 |
| Ekonomia aurreikuspenak.....  | 34 |
| Espainiako ekonomiarako aurreikuspen ekonomikoak (2024ko otsaila) ..... | 35 |
| Aurreikuspenak egiteko hipotesiak (2024ko martxoa) .....                | 37 |
| EAEko ekonomiarako aurreikuspenak hiruhilekoka (2024ko martxoa).....    | 38 |

## LABURPENA

EAEko ekonomiak hazkunde egonkorraren irudia erakusten du, azken hiru hiruhilekoetako datuetan ikus daitekeenez. BPGaren urte arteko bilakaerak %1,5, %1,7 eta %1,7ko balioak izan zituen, hurrenez hurren. Horri esker, 2023ko balantzeak %1,8ko hazkundera izan zuen, eta zifra horrek hamarren bat gainditzen du Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak joan den irailean egindako aurreikuspena. EAEko ekonomiak duen dinamismoa urrun dago inguruko herrialde batzuen eta euro eremuaren beraren ahuleziatik. Hain zuzen ere, azken arlo ekonomiko hori %0,5 hazi zen pasa den urte osoan, eta hamarren bat bakarrik laugarren hiruhilekoan. Zifrak okerragoak dira Alemaniarentzat, hamarren gutxi batzuk jaitsi baitziren bai urteko batez bestekoan, bai laugarren hiruhilekoan.

Pasa den urtean, EAEko eta Europako industriak aurre egin behar izan zieten zailtasun batzuei. Energiaren prezio altuek, interes tasen igoerak, gatazka geopolitikoek eta nazioarteko merkataritzaren jaitsierak sektorearen jarduera geldiarazi zuten. Hala eta guztiz ere, EAEko industriaren balio erantsia %0,3 handitu zen urteko batez bestekoan eta %0,1, berriz, laugarren hiruhilekoan. Manufaktuei dagokienez, lortutako emaitza zertxobait hobea izan zen: %0,5 igo zen urte osoan eta %0,3 laugarren hiruhilekoan. Aipatutako zifrak garrantzi txikikoak badira ere, adierazi behar da enpresek baikortasun neurritsua erakusten dutela etorkizunari begira, eta sektoreko enplegua %1,0 inguruko erritmoan hazi zela, bai 2023an, bai 2024ko lehen hilabeteetan.

Lehengaien, energiaren eta interes tasen garestitzeak eraikuntzan ere izan zuen eraginik handiena. Hala ere, 2023an lortutako emaitza positiboa izan zen: sektorearen balio erantsia %2,1 igo zen urte osoan eta %1,5, berriz, laugarren hiruhilekoan. Koiunturazko informazio osagarriaren arabera, eraikinen atalak eta, bereziki, obra zibilak nabarmen egin zuten gora. Lehengaien kostuak hilabetez hilabete apaldu dira, batez ere 2024aren hasieran, eta, beraz, sektoreak aurten bilakaera ona izango duela aurreikusten da.

Zerbitzuak izan ziren EAEko ekonomiaren motorra 2023an, eta bilakaera oso egonkorra erakutsi zuten iazko azken hiru hiruhilekoetan, ia alderik gabe batean eta bestean erregistratutako tasetan. Urteko batez bestekoa balio erantsiaren %2,4ko hazkundera izan zen, eta laugarren hiruhilekoan %2,3koa. Joan den urtean bultzada handiena izan zuten jarduerak merkataritza, ostalaritza eta garraioari dagozkienak izan ziren (%3,7), baina urtean zehar tasa altuetatik apaletara mugitu zen, laugarren hiruhilekoan %2,5eko tasarekin amaitu arte. Aitzitik, sektore publikoari gehien lotutako jarduerak (administrazio publikoa, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerbitzuak) alderantzizko bidea egin zuten, eta %2,9 hazi ziren urtearen azken hiruhilekoan. Gainerako zerbitzuek dinamismo txikiagoa erakutsi zuten, bai urteko batez bestekoan, bai laugarren hiruhilekoan.

Eskariaren ikuspegiak adierazten du atzerriarekiko merkataritzaren hobekuntzak ekarpen positiboa, txikia bada ere, utzi zuela EAEko BPGaren hazkundean. Ondoz ondoko bi hiruhilekotan behera egin ondoren, laugarren hiruhilekoan esportazioak (%1,6) eta inportazioak (%1,3) berpiztu ziren, bi neurri horiek balio errealetan. Horri esker, bi magnitudeetan urteko batez bestekoa positiboa izan zen (%1,2 eta %1,0), baina aurreko urtean erregistratutako bi digituko zifretatik urrun.

Beste aldetik, barne eskariak joera positiboari eutsi zion urte osoan zehar, nahiz eta laugarren hiruhilekoan aldakuntza tasa (%1,4) aurreko datuen eta aldi horretako ekonomiaren batez besteko hazkundearen azpitik kokatu zen (%1,7). Barne eskariaren bi osagaietatik, kapital eraketa gordina izan zen dinamikoena urtean zehar, %2,1eko batez besteko hazkundearekin eta laugarren hiruhilekorako %1,6ko gehikuntzarekin. Ekipamendurako ondasunetan egindako inbertsioak oso irudi dinamikoa eman zuen urtearen bigarren erdian, eta gainerako inbertsioak intentsitatea galdu zuen hiruhilekoak igaro ahala. Familien kontsumoak goranzko joerari eutsi zion hiruhilekotik hiruhilekora, eta %1,5eko hazkundera eskuratu zuen, bai urteko batez bestekoan, bai azken hiruhilekoan, urte osoan lortutako enplegu sorkuntza esanguratsuari esker. Azkenik, administrazio publikoen kontsumoa, garrantzitsua izan arren, moteltzen joan zen hiruhilekoak igaro ahala.

Hain zuzen ere, lan merkatuaren sendotasuna da EAEko ekonomiak bizi duen une ona azaltzen duten gakoetako bat. Izan ere, 2023 osoan, enplegua, lanaldi osoko lanpostu baliokideetan neurtuta, %1,7 handitu zen, 16.500 enplegu garbi inguru sortuta, baina laugarren hiruhilekoan tasa %1,9ra igo zen. Enplegu berri gehiena zerbitzuetan sortu da, eta horrek emakumeak lan merkatuan parte hartzea errazten du, baina industrian eta eraikuntzan ere gora egin du lanpostuen kopuruak. 2024aren hasieran, aldeko joera horri eutsi zaio.

Inflazioak moteltzeko joera erakutsi zuen 2023an zehar, nahiz eta azken tartean gorakada bat jaso zuen, laugarren hiruhilekoko KPIaren batez bestekoa %3,4ra eraman zuena, urtarrilean %3,5eko gailurrarekin, neurri handi batean elektrizitateari aplikatutako BEZaren tipoaren aldaketaren ondorioz. Hala eta guztiz ere, otsailean tasa %3,1era jaitsi zen. Eta datozen hilabeteetarako aurreikuspenek seinalatzen dute jaisten jarraituko duela, EBZren helburura hurbildu arte.


Azken sei hilabeteetan ezagututako informazioak eragin mugatua izan du 2024-2025 biurtekorako aurreikuspenetan; izan ere, irailean aurreikusitako %2,1eko eta %1,8ko tasen aldean, oraingo aurreikuspenak %1,9 espero du aurten eta %2,1 datorren urtean. Hau da, aurten hazkundera bi hamarren txikiagoa izango da eta datorren urtean hiru hamarren handiagoa. Enplegu sorreraren indarra funtsezkoa da barne eskariaren bizitasuna ulertzeko, kanpo merkatuek, Espainiakoak izan ezik, ahulezia handia erakusten duten bitartean.

## EKONOMIAREN INGURUNEA


Ziurgabetasun geopolitiko handia, interes tasen gorakada eta nazioarteko eskariaren hoztea gorabehera, 2023ko laugarren hiruhilekoko datuek berretsi egin zuten munduko ekonomiaren erresilientzia, eta ekitaldiaren hasieran aurreikusitakoa baino hazkunde eta inflazio konbinazio hobearekin amaitu zuen urtea. Lan merkatu dinamiko batzuen babesak ekonomia aurreratu nagusiak sendotu zituen, eta shock energetikoa desagertzeari eta haren zeharkako ondorioak pixkanaka desagertzeari esker, inflazioaren jaitsiera azkarrari ere etekina atera zioten. Hala ere, beste behin ere, bilakaera desberdina hauteman zen eremuka eta herrialdeka. Horrela, AEB eta Espainia azkar hazten ari ziren bitartean, Alemania uzkurto egiten zen eta eurogunea geldialdira eramaten zuen. Hala eta guztiz ere, 2024rako ekonomia aurreratuentzako igurikimen aldaketa bat bultzatu da, 2023ko beldur estanflazionistak atzean utzi eta lurreratze leun bat espero baitute.

### Munduko ekonomia. BPGa (I) Urte arteko aldakuntza tasak

ELGA



Txina



Iturria: ELGA.

Asian, Txina %5,2 hazi zen 2023ko laugarren hiruhilekokoan eta urte osoko balantzeak balio bera izan zuen. Kopuru hori Pekinek urte hasieran ezarritako %5,0 inguru hazteko helburuaren gaitetik dago, eta NDFk aurreikusitakoarekin bat dator. Hala ere, hazkunde garrantzitsu horren zati handi batek 2022ko errendimendu txikiaren ondorio estatistikoa jasotzen du (Txinak ez zituen bere murrizketak 2023ra arte altxatu), eta, beraz, susperraldiaren sendotasuna zalantzan dago oraindik, are gehiago kontsumo pribatua sendo suspertzen ez denean. Izan ere, higiezinaren sektoreak jaitsiera librean jarraitzen du (urtarrilean salmentek %35 egin zuten behera), inflazioak lau hilabete daramatza negatiboan (-%0,8 urtarrilean), inbertsio pribatuek behera egin

dute, kreditua sustatzeko neurriak hartu diren arren, esportazioek atonia zantzuak erakusten jarraitzen dute eta gazteen langabeziak langabezia tasa orokorra ia hirukoiztu du. Halaber, otsaileko manufakturako PMIa bosgarren hilabetez jarraian mantendu zen jardueraren beherakadarekin bateragarriak diren balioekin (49,1); zerbitzuen adierazleak, berriz, hedapen eremuan mantendu bazen ere, erritmoa galdu zuen berriro.

Herrialde aurreratuen bilakaerari dagokionez, ELGAko jarduera ekonomikoak %1,7ko hazkunde erritmoari eutsi zion, 2023 osoan izandako tonuaren oso antzera. Datu horrek esan nahi du eremua osatzen duten herrialde guztiek, Txekiar Errepublikak izan ezik, pandemia aurreko maila berreskuratu zutela. Besteak beste, Espainiak bere BPGaren maila pandemiaren aurreko datua baino %2,9 handiagoa izan zen laugarren hiruhilekoan, euroguneko %3,0tik gertu, baina AEBetako %8,2tik urrun. Beste erreferentzia batzuk Frantziakoak (%1,8), Erresuma Batukoak (%1,0) eta Alemaniakoak (%0,1) dira.

Zehatzago, AEBk %3,1eko hazkundera izan dute 2023ko azken hiruhilekoan eta hazkunde bizkorreko laugarren hiruhilekoa kateatu dute. Horrela, AEBko ekonomia gainerakoen gainera nabarmentzen da, ez bakarrik bere bilakaera dinamikoagatik, baizik eta igurikimen guztiak desafiatu dituelako (Erreserba Federalak aurreikusten zuen AEBak atzeraldian sartuko zirela 2023ko azken zatian), eta uste baino askoz indar handiagoz eutsi dio moneta-politika gogortzeari. AEBetako ekonomiak 2023an erakutsitako sendotasun hori, batez ere, kontsumo pribatuaren portaera onak eragin du, aldi berean, lan merkatuaren sendotasunak eta pandemian zehar bildutako aurrezkiaren geldikinek lagunduta, eta kontsumo publikoaren bultzadak lagunduta. Izan ere, lan merkatuak %3,7ko langabezia tasarekin amaitu zuen 2023, eta ekonomiak 2,7 milioi lanpostu sortu zituen urte osoan. Horrela, hiru urtean 14,75 milioi enplegu sortu dira guztira, kopuru errekorra. 2023ko datuak onak izan badira, 2024koak ez dirudi okerragoa izango denik. Otsaileko PMI indize konposatua 52,5eraino igo da, manufaktura sektorearen hazkunde handiari esker (52,2).


Aitzitik, Japoniako BPGa gehiagotik gutxiagora joan zen 2023an zehar eta erritmoa galtzen joan zen: lehen hiruhilekoan %2,6 hazi zen eta laugarrenean, berriz, %1,2. Japoniaren kasuan, kontsumo pribatua (BPGaren %60,0 inguru da herrialdean) uzurtuta mantendu zen eta jarduerari hiru hamarren kendu zizkion; inbertsio pribatuak, berriz, irudi apatikoa izan zuen, kontsumo eta inbertsio publikoak bezala. Japoniarrak, dirudienez, uzkur daude egungo inflazio iraunkorreko testuinguruan gastatzeko (urtarrilean KPIa %2,1ean kokatu zen), eta soldata hazkunde motela dute. Izan ere, kanpo eskariak soilik bultzatu zuen BPGaren hazkundera. Esportazioen jarduera egokiari esker, kanpo sektoreak 1,4 puntu eman zizkion jarduera ekonomikoari, eta barne eskariaren beherakada konpentsatu ahal izan zuen. 2024rako aurreikuspenak ez dira hobeak. Manufaktura PMI indizea 47,2ra jaitsi zen otsailean, pandemia eta murrizketa ugarien mailara.




Nazioarteko merkataritzaren ahultasun luzeak, inflazio handiak, EBZren moneta politika murriztaileak eta Txinak Alemaniako produktuen eskaria nabarmen jaitsi izanak euroaren eremuko hazkunde erritmoaren moteltze handia ekarri dute, urtea geldialdian amaitu baita. Hain zuzen ere, euroguneak %1,3ko hazkundearekin hasi zuen urtea eta %0,07ko igoera xumearekin amaitu zuen, hiruhilekotik hiruhilekora atzeraldi tekniko saihestuz, azkenean ez baita gauzatu. Laugarren hiruhileko horretako datu positiboa kontsumo pribatuaren bilakaerari esker etorri zen; izan ere, hazkunde positiboekin ekin zuten berriro, eta hiru hamarreneko ekarpena egin zion jarduera ekonomikoari, izakinen aldakuntzaren murrizketak eta esportazioen beherakadak ezerezean utzi bazuten ere.

### Munduko ekonomia. BPGa (II) Urte arteko aldakuntza tasak

AEB



Eurogunea



Iturria: Eurostat eta BEA.

Herrialdeka, Portugalek (%2,2) eta Espainiak (%2,0) erakutsitako sendotasuna nabarmentzekoa da, Frantziaren (%0,7) eta Italiaren (%0,6) ahuleziaren eta Alemaniaren (-%0,2) uzkurduraren aurrean. Espainiaren kasuan, BPGaren agregatu guztiek egin zizkioten ekarpen positiboak hazkunderari, baina kontsumo pribatukoak eta inbertsiokoak azpimarratu behar dira, modu dinamikoan hazi baitziren. Izan ere, pandemiak gogorrago jo zuen Espainia turismoarekiko eta zerbitzuekiko mendekotasunagatik, eta, beraz, haren uzkurdura handiagoa izan zen, baina Ukrainaren inbasioaren ondorioz larriagotu den energia eta industria krisiak ez dio eragin Alemaniari, Italiari eta Europa erdialdeari eta ekialdeari bezalaxe. Orobat, Espainiak Errusiako gasarekiko esposizio txikiagoa du, berriztagarriagoa, industria gutxiagokoa, eta proportzioan gutxi esportatzen du hauspoa galtzen duen Txinako ekonomiara; beraz, bere jarduera ekonomikoaren bilakaera ez da bazkideena bezain baldintzatua izan.

Aitzitik, Alemanian, esportaziora bideratutako ekonomia den aldetik, gas merke errusiarrak gasbideetatik isurtzeari utzi dio, eta horrekin batera, Alemaniako industriaren lehiakortasunaren zati bat desagertu da. Gainera, Txinak jada ez du inportatzen lehen egiten zuen bezala, tentsio geopolitikoengatik. Horrek guztiak, prezioen eta diruaren hazkundearekin batera, kontsumoaren, inbertsioaren (eraikuntzan zein ekipamenduan) eta, bereziki, esportazioen uzkurdura ekarri du, Alemaniako BPG -%0,2ra jaitsi baita 2023ko azken hiruhilekoan, eta, horren aurretik, %0,3ko uzkurdura eta beste bi hiruhilekoko geldialdia gertatu dira.

Frantziak ere ikusi zuen bere inbertsioak behera egiten zuela, baina bere bazkide germaniarrak ez bezala, herrialdeko kontsumo pribatuak eta esportazioek eremu positiboan irautea lortu zuten, BPGari eutsiz. Nolanahi ere, herrialde galiarraren ahultasuna nabaria da eta ekoizpena positiboan mantendu arren, hazkunde mailak bere batez besteko historikotik oso urrun daude. Italiaren ekoizpen sarea altua da eta alemaniarrarekin lotura handia du. Gainera, egoeraren araberrako shockek eta Alemaniaren hauskortasunak kalte handia egin diote, eta horrek ekonomia ahuldu du. Hala ere, iazko azken hiruhilekoan kontsumo pribatuak hazkunde positiboek ekitea lortu zuen, eta inbertsioa sendo mantendu zen.

Jarduera ekonomikoa moteldu zen arren, lan merkatuak dinamikoa izaten jarraitu zuen. Zehatzago esanda, euroguneko langabezia tasa %6,4ra jaitsi zen urtarrilean, 2023ko martxotik izandako maila baino hamarren gutxi batzuk beherago eta serie historiko osoko gutxieneko balioa. Tasa horrek langabeen kopurua 11 milioira mugatzen du. Halaber, pandemiaren aurreko maila baino ehuneko puntu bat beherago kokatu da, zeren eta 2020ko otsailean euroguneko herrialdeen arteko langabezia %7,4 izan baitzen. Prezioen bilakaerari dagokionez, abenduan ustekabeko gorakada izan ondoren, urtearen hasieran goranzko joera hori aldatu egin zen eta otsailean KPIa %2,6ra jaitsi zen. Azpiko inflazioa ere, elikagaien eta energiaren prezio hegazkorrak alde batera uzten baititu, moteldu egin zen, %3,1era arte, eta 2022ko martxotik izandako punturik baxuenera iritsi zen.

Aurtengo urteari begira, 2024ko lehen hilabeteetan 2023ko amaieran bizi izandako geldialdia luzatuko dela aurreikusten da, eta egoera makal horretatik eurogunea pixkanaka aterako dela aurreikusten da, Europako Batzordeak plazaratu duen azken berrikuspenaren arabera, 2024rako eurogunearen hazkunde aurreikuspenak aurreko %1,2tik %0,8ra murriztu baititu. Europako Batzordeak nabarmendu du 2024ko bigarren erdian ekonomia pixkanaka suspertuko dela, inflazioaren presioen jaitsierak, soldata errealean aurreikusitako igoerak eta lan merkatuaren sendotasunak bultzatuta, familien gastua suspertuko baitu. Euroaren eremuko PMI konposatuak geldialdi eremuan jarraitu zuen otsailean (49,2), eta horrek Europako Batzordeak esandakoari eusten dio, nahiz eta azken zortzi hilabeteetako daturik onena dela ere aipatu behar den.

## EAE-KO EKONOMIA

### Ekoizpena eta enplegua

EAEko ekonomiak hazkunde erritmoan egonkortasunaren irudia erakutsi zuen 2023. urtearen zati handi batean. Hain zuzen ere, laugarren hiruhilekoan urte arteko hazkundera %1,7 izan zen, aurreko hiruhilekoaren tasa bera. 2023ko batez bestekoa %1,8 izan zen, aurreko urteko datuaren azpitik argi eta garbi, datu hura pandemia kontrolatzeko ezarri ziren murrizketen ondoren normaltasunera itzultzeak baldintzatuta baitzegoen. 2023ko urteko datua Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak irailean aurkeztutako aurreikuspena baino hamarren bat handiagoa da, eta laugarren hiruhilekoko tasa, berriz, hiru hamarren gorago kokatu da. Beraz, EAEko ekonomiak erresilientzia handia erakutsi du testuinguru ekonomikoa mehatxatzen zuten erronken aurrean: inflazio handia, interes tasa altuak, epe laburrerako irtenbiderik gabeko tentsio geopolitikoak eta protekzionismoak geldiarazitako nazioarteko merkataritza, besteak beste. EAEko ekonomiaren irudi positibo hori ez dator bat Europako ekonomiaren ahuleziarekin; izan ere, Europako ekonomiak %0,5eko hazkundera baino ez zuen eskuratu urte osoan, eta, eurogunean, %0,1ekoa laugarren hiruhilekoan. Egoera horretan, nabarmentzekoa da Alemaniako BPGaren jaitsiera iazko lau hiruhilekoetatik hirutan.

### ESKAINTZAREN ALDAGAIK

#### Urte arteko aldakuntza tasak

|                                     | 2022       | 2023       | 2023       |            |            |            |
|-------------------------------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|
|                                     |            |            | I          | II         | III        | IV         |
| <b>BPG erreala</b>                  | <b>5,4</b> | <b>1,8</b> | <b>2,4</b> | <b>1,5</b> | <b>1,7</b> | <b>1,7</b> |
| Nekazaritza eta arrantza            | -8,7       | -3,0       | 1,3        | -5,9       | -4,4       | -2,6       |
| Industria eta energia               | 4,7        | 0,3        | 1,2        | -0,7       | 0,5        | 0,1        |
| - Manufakturen industria            | 4,4        | 0,5        | 1,5        | -0,5       | 0,7        | 0,3        |
| Eraikuntza                          | 6,7        | 2,1        | 0,9        | 3,6        | 2,5        | 1,5        |
| Zerbitzuak                          | 5,9        | 2,4        | 3,0        | 2,2        | 2,1        | 2,3        |
| - Merkat., ostalaritza eta garraioa | 14,6       | 3,7        | 5,7        | 3,1        | 3,7        | 2,5        |
| - AA. PP., hezkuntza eta osasuna    | 0,9        | 2,3        | 1,3        | 2,3        | 2,6        | 2,9        |
| - Gainontzeko zerbitzuak            | 3,2        | 1,6        | 2,2        | 1,6        | 0,7        | 1,7        |
| Balio erantsi gordina               | 5,5        | 1,8        | 2,5        | 1,5        | 1,7        | 1,6        |
| Ekoizkinen gaineko zerga garbiak    | 4,6        | 1,6        | 1,8        | 1,0        | 1,5        | 1,9        |

Iturria: Eustat.

Eurogunearen ahultasuna, batez ere, industria sektoretik dator, lehenago ere aipatutako arrazoiak kalte egiten baitiote. Araba, Bizkai eta Gipuzkoako industriak ere aurre egin behar izan ziren zailtasun horiei eta hazkunde txikiko profila erakutsi zuen; eraikuntzak eta, bereziki, zerbitzuek gorantz bultzatu zuten balio erantsi gordinaren hazkundera, %1,8 igo baitzen urte osoan eta %1,6, berriz, laugarren hiruhilekoan. Beste aldetik, produktuen gaineko zerga garbiak, gorabehera batzuk izan bazituen ere, %1,6 igo ziren urteko batez bestekoan eta %1,9 azken hiruhilekoan.

## JARDUERAREN ADIERAZLEAK

Urte arteko aldakuntza tasak

|  | 2022  | 2023  | 2023  |       |       |       |
|--|-------|-------|-------|-------|-------|-------|
|  |       |       | I     | II    | III   | IV    |
| <b>Industria</b>                         |       |       |       |       |       |       |
| Industria produkzioaren indizea          | 5,6   | -0,5  | 1,9   | -1,7  | -0,7  | 1,3   |
| Negozio zifren indizea                   | 25,8  | 1,6   | 19,1  | -6,4  | 0,7   | -4,7  |
| Industria giroaren indizea (maila)       | 1,1   | -14,9 | -12,7 | -15,8 | -15,3 | -16,0 |
| Gizarte Segurantzako afiliazioa          | 1,2   | 1,2   | 1,1   | 1,3   | 1,0   | 1,2   |
| <b>Eraikuntza</b>                        |       |       |       |       |       |       |
| Eraikuntzaren koiuntura indizea          | 8,3   | 6,2   | 2,9   | 11,3  | 6,1   | 4,5   |
| Etxebizitza berriak eraikit. oniritziak  | -13,7 | -17,4 | -39,7 | 7,3   | -14,3 | -9,7  |
| Etxebizitzen salerosketak                | 9,1   | -12,5 | -0,8  | -18,2 | -14,8 | -17,5 |
| Gizarte Segurantzako afiliazioa          | 1,7   | 0,8   | 1,3   | 0,9   | 0,7   | 0,4   |
| <b>Zerbitzuak</b>                        |       |       |       |       |       |       |
| Merkataritza salmenten indizea           | 2,9   | -1,6  | 0,4   | -2,6  | -2,4  | -1,8  |
| Merkatuko beste zerbitzu batzuen indizea | 11,6  | 6,0   | 10,9  | 5,6   | 5,6   | 2,5   |
| Negozio zifren indizea                   | 16,2  | 1,9   | 9,9   | 1,0   | -0,4  | -2,0  |
| Hegazkinen bidezko bidaiariak            | 100,7 | 24,0  | 61,0  | 19,9  | 17,1  | 17,8  |
| Hoteletan igarotako gaualdiak            | 54,2  | 12,0  | 30,4  | 11,2  | 7,9   | 7,4   |
| Gizarte Segurantzako afiliazioa          | 2,4   | 1,8   | 1,3   | 1,7   | 2,1   | 2,2   |

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustat, INE, Ekonomia, Merkataritza eta Enpresa Ministerioa, Etxebizitza eta Hiri Agenda Ministerioa, Gizarte Segurantza eta AENAREN datuetan oinarrituta.

Industriaren balio erantsia %0,3 baino ez zen hazi urte osoko batez bestekoan, eta azken hiruhilekoan urte arteko tasa %0,1era jaitsi zen, ingurune ahuldu baten ondorioz, energia oraindik garestiaren ondorioz, inbertsioa moteltzen duten interes tasa altuen ondorioz eta oraindik uxatzen ez den ziurgabetasun baten ondorioz. Manufakturek jarduera hobetuz izan

zuten, baina aurreko urteko dinamismotik urrun. Hala, urtearen amaierak %0,3 egin zuen gora eta urteko emaitza %0,5eko igoera baino ez zen izan.

Laugarren hiruhilekoko ahultasun hori gorabehera, azken hilabeteetarako ezagutu diren koiunturako datuek iradokitzen dute industria apurka-apurka berreskuratzen ari dela hedapen tonua. Hala, industria produkzioaren indizeak (IPI) %1,3ko urte arteko tasa lortu zuen urtarrilean, eta hiru hilabetez jarraian eskuratu ditu aldakuntza tasa positiboak. Ekipamenduko ondasunen produkzioa nabarmentzen da, urtarrilean %5,4 hazi baitzen, bederatzi hilabetez jarraian hazkundeak lortuz, horietako batzuk bi zenbakikoak. Bestalde, energia ekoizpenak zeinua aldatu zuen urtarrilean, eta atzean utzi zituen hamalau hilabetezko jaitsierak, %8,9ko igoera lortzeko. Atzetik, baina urrutitik, kontsumorako ondasunen ekoizpena dator, eta positibora igaro da, balio apalarekin bada ere (%0,5). Azkenik, bitarteko ondasunek igoerak eta jaitsiera txikiak tartekatuta dituzte. Urtarrilean, produkzioa %2,9 jaitsi zen.

Industria giroaren indizearen arabera, industria enpresen igurikimenez ezkortasun nabarmena erakutsi zuten 2023an, nahiz eta azken hiruhilekoetan ia ez zuen okerrera egin. Puntu baxuena aurtengo urtarrilean erregistratu zen, baina otsailean, ezagutzen den azken hilabetean, hobekuntza nabarmena gertatu da, eta hilabete horretako indizea azken urteko baikorrena izan da. Bereziki, eskaera zorroari buruzko erantzunak aurreko hilabeteetakoak baino hobekiak izan ziren otsailean. Bestalde, ekoizpenaren joerak oso negatiboa izaten jarraitzen du, baina urtarrileko balioetara iritsi gabe. Azkenik, enpleguari buruzko aurreikuspenak asko okertu ziren laugarren hiruhilekoan eta urtarrilean, baina leundu egin dira otsailean.

Eraikuntzak bultzada handia lortu zuen 2022an eta dinamismoari eutsi dio 2023an, baina apaltzea nabaria da bigarren hiruhilekotik, laugarren hiruhilekoko balio erantsiaren hazkundeak %1,5ean utzi arte, EAEko ekonomiaren batez bestekoaren pixka bat azpitik. Sektoreko kostuak tasa garrantzitsuetan igotzen jarraitzen dute (%3,0 urtarrilean), baina duela urtebete izandako erritmoetatik urrun (%9,0 2023ko urtarrilean). Bestalde, eraikuntzaren koiuntura indizeak iradokitzen du eraikinen atalak eta obra zibilak antzeko urte arteko aldakuntza tasak izan zituztela laugarren hiruhilekoan (%4,6 eta %4,3, hurrenez hurren).


Zerbitzuek joera hedatzaile egonkorra erakusten dute eta horrek esan nahi du balio erantsiaren batez besteko hazkundeak %2,4 izan dela 2023an eta %2,3, berriz, laugarren hiruhilekoan, hiruhileko batetik bestera aldaketa gutxirekin. Merkataritza, ostalaritza eta garraioa barne hartzen dituen bloketik etorritako hasierako bultzada baten ondoren, urtearen azken zatian aldakuntza tasak berdinduz joan dira jardueretan. Hala, merkataritza taldeak moteldu egin zuen erritmoa, %2,5eraino, eta sektore publikoari gehien lotutako jarduerak (administrazio publikoa, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerbitzuak) bizkortu egin zuten erritmoa, %2,9ko tasara iritsi arte. Bestalde, gainerako zerbitzuen balio erantsiak %1,7 egin zuen gora.

Koiunturazko informazio berrienak adierazten duenez, turismoarekin lotutako jarduerak oso bilakaera ona izaten jarraitzen dute, baina aurreko aldietako erritmo apartekoetara iritsi gabe. Hala, hotel establezimenduetako gaudiek marka berria ezarri zuten 2023an, 7,2 milioi gaudirekin, aurreko urtean baino %12,0 gehiago. Aldakuntza tasa moteltzen joan zen urtean zehar, laugarren hiruhilekoko %7,4raino, eta 2024ko urtarrilean %3,4koa izan zen igoera. Hegazkinez egindako bidaiei dagokienez, intentsitatearen galera txikiagoa da, eta otsailean %16,0ko hazkundera erregistratu zen.


EAEko ekonomiak joera positiboari eusteko arrazoietakoa bat lan merkatuaren bilakaera bikaina da. Hain zuzen ere, 2023. urte osoan, EAEko ekonomiak behar dituen lanaldi osoko lanpostu baliokideen kopuruak %1,7 egin zuen gora, ia 982.100 enpleguraino. Laugarren hiruhilekoan, aldakuntza tasa are handiagoa izan zen (%1,9), eta bizkortze arineko profila erakusten zuen joan den urte osoan zehar. Horiek horrela, azken hiruhilekoan 988.000 enplegu baino gehiago izan ziren, aurreko urteko aldi bererako zenbatetsitakoak baino 18.300 gehiago. Horietatik, 16.200 inguru zerbitzu jardueretan sortu ziren, eta laugarren hiruhilekoan enplegua %2,3 igo zen. Horiei industriaren ia 2.000 enplegu gehitu behar zaizkie, enpleguak %1,0ko erritmo egonkorrean egin baitu gora. Eraikuntzak 250 enplegu inguru ekarri zituen eta lehen sektoreak ehun bat enplegu galdu zituen.

### Enpleguaren bilakaera Urte arteko aldakuntza tasak

Kontu ekonomikoak



Afiliazioa



Iturria: Eustat eta Gizarte Segurantzak.

Enpleguaren gorakada 16 eta 64 urte bitarteko biztanleriaren enplegu tasan ere nabari da, laugarren hiruhilekoan %70,5era igo baitzen, aurreko urtean zegoena baino zortzi hamarren gorago baitago orain. Bi sexuetan ikusten da tasaren hobekuntza, baina zertxobait handiagoa da

emakumeen artean, %67,5ean kokatu baitute tasa, aurreko urteko datua baino ia puntu bat gorago; gizonen okupazio tasa, berriz, %73,4ra iristen da, aurreko urtekoa baino sei hamarren gehiago. Oraingo diferentziala 5,9 puntukoa da.

Jadanik igaro diren 2024ko hilabeteetan, enpleguaren sorrera maila bertsuan mantendu da, Gizarte Segurantzako afiliazioak emandako informazioaren arabera. Hala, 2023ko laugarren hiruhilekoan afiliazioaren hazkunde erritmoa %1,9 izan zen, eta 2024ko urtarrileko eta otsaileko batez bestekoan tasa hori bera errepikatu da. Sexuaren arabera, bai gizonen artean (%1,5) bai emakumeen artean (%2,3), urte arteko aldakuntzan ez da aldaketa aipagarriarik izan, eta aurreko hilabeteetako erritmoari eutsi zaio. Bizkortze txiki bat hauteman da zerbitzuen afiliazioan, %2,3ra igo baita urte honen hasieran, baina konpentsatu egiten da eraikuntzaren hoztearekin (%0,2). Ostalaritza eta hezkuntza, biak %4,3ko tasekin, dira hazkunderik garrantzitsuenak eskuratu dituzten jardueretako bi.

Enplegua sortzearen ondorioz, pertsona gehiago sartzen ohi dira lan merkatuan. Hala ere, une honetan geldialdia dago enpleguaren ikuspegitik aktibotzat hartzen diren pertsonen kopuruan, guztira milioi bat pertsona baino zertxobait gehiago baitira. Termino erlatiboetan, jarduera tasak jaitsiera txiki bat ere erakusten du aurreko urtearen aldean, 2022ko laugarren hiruhilekoan erregistratutako %56,4tik 2023ko aldi bereko %56,0ra jaitsi baita tasa. Beherakadak eragin handiagoa izan du emakumeen kolektiboan, partaidetza sei hamarren jaitsi baita, eta beren tasa %51,6 izan da, gizonen tasa baino bederatzi puntu txikiagoa.

Gora egiten ez duen biztanleria aktibo batean enpleguak gora egiten badu, langabeen kopuruak nabarmen egin behar du behera. Horrela, langabezian zegoen biztanleria 73.100 pertsonara murriztu zen laugarren hiruhilekoan, eta horietatik 34.500 emakumeak ziren. Izan ere, aldakuntza tasa -%18,6 da, eta jaitsiera are handiagoa da emakumeen kasuan (-%26,3). Bilakaera horrek laugarren hiruhilekoko langabezia tasa orokorra %7,0an uzten du, alde handirik gabe gizonen (%7,1) eta emakumeen (%6,9) artean. Beraz, azken urtean langabezia tasa 1,5 puntu murriztu da. Nabarmenezkoa da 45 urteko eta gehiagoko pertsonen tasa %5,5era jaitsi zela, eta gazteena, berriz, %14,8an dago.

Laugarren hiruhilekoko BPGa (%1,7) aldi horretako enpleguaren hazkundera (%1,9) baino pixka bat txikiagoa izan zela kontuan hartuta, lan faktorearen itxurazko produktibitateak jaitsiera txiki bat izan zuen, bi hamarren ingurukoa, eta hori ez da ohikoa izaten. Lanaldi osoko orduen kopuruak behera egin izanak eta etorkizunerako itxaropen baikorrak azaltzen dute galera txiki hori. Industriak apenas handitu zuen bere balio erantsia (%0,1), baina enplegua %1,0 handitu zuen, itxurazko produktibitatea nabarmen okertuz. Aitzitik, eraikuntzaren balio erantsia (%1,5) enpleguarena (%0,4) baino askoz handiagoa izan zen.

## Barne eta kanpo eskaria

Eskariaren ikuspegitik, 2023ko laugarren hiruhilekoan nabarmendu beharreko ezaugarria da kanpo saldoak EAEko BPGaren hazkundeari egin zion ekarpen positiboa, apala izan bazen ere, bi hamarren pasatxokora mugatu baita. Oraindik ezin da baieztatu atzerriarekiko merkataritza hedapen sendoko bidea berreskuratu duenik, baina joan den urteko erdialdeko hiruhilekoetako jaitsierak atzean geratu dira, eta eskuratu diren aldakuntza tasak ez dira ekonomia osoan jasotakoan oso bestelakoak.

### ESKARIAREN ALDAGAIK

Urte arteko aldakuntza tasak

|                              | 2022       | 2023       | 2023       |            |            |            |
|------------------------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|
|                              |            |            | I          | II         | III        | IV         |
| <b>BPG erreala</b>           | <b>5,4</b> | <b>1,8</b> | <b>2,4</b> | <b>1,5</b> | <b>1,7</b> | <b>1,7</b> |
| Gastua azken kontsumoan      | 6,0        | 1,5        | 2,0        | 1,2        | 1,6        | 1,4        |
| - Familien gastua kontsumoan | 7,7        | 1,5        | 1,8        | 0,9        | 1,6        | 1,5        |
| - Adminis. gastua kontsumoan | 0,7        | 1,8        | 2,4        | 2,3        | 1,3        | 1,2        |
| Kapital eraketa gordina      | 8,7        | 2,1        | 1,6        | 2,5        | 2,6        | 1,6        |
| - Ekipamendu ondasunak       | 7,1        | 2,1        | 2,4        | 0,9        | 2,4        | 2,5        |
| - Gainontzeko inbertsioa     | 9,6        | 2,0        | 1,1        | 3,5        | 2,6        | 1,0        |
| Barne eskaria                | 6,7        | 1,7        | 1,9        | 1,5        | 1,8        | 1,4        |
| Esportazioak                 | 17,1       | 1,2        | 6,3        | -2,5       | -0,6       | 1,6        |
| Inportazioak                 | 18,7       | 1,0        | 5,4        | -2,3       | -0,3       | 1,3        |

Iturria: Eustat.

Ohi bezala, hazkunde ekonomikoaren oinarria barne eskariaren hedapenean dago, eta horrek tonu positiboari eutsi zion, baina aurreko hiruhilekoko erritmora iritsi gabe. Izan ere, iazko hirugarren hiruhilekoan %1,8 hazi zen eta azken laurdenean, berriz, %1,4. Barne eskariaren bi osagai nagusiek bilakaera moteldu egin zuten iazko urtearen bigarren erdian, baina bereziki kapital eraketa gordinak galdu zuen intentsitatea laugarren hiruhilekoan, bereziki eraikuntzan eginiko inbertsioa barne hartzen duen atalean. Beste aldetik, azken kontsumoko gastua tasa egonkorretan mantendu zen azken hiruhilekoetan, eta aurreko hiruhilekoko erritmoarekiko aldakuntza bi hamarrenekoa baino ez zen izan; urteko batez bestekoa (%1,5), berriz, laugarren hiruhilekoan erregistratutako zifra (%1,4) hamarren batean baino ez da gainditzen.



Azken kontsumoak erakutsi zuen egonkortasuna bi osagaietan hauteman zen, eta osagai horiek hamarren bat baino ez zuten murriztu aurreko hiruhilekoan erregistratutako tasa. Hori horrela izanda, familien gastua kontsumoan %1,5 handitu zen, ekonomiaren batez besteko hazkundetik bi hamarrenera soilik, nahiz eta oraindik ere inflazio tasa handia izan. Hala ere, enplegua sortzeari esker, familiek kontsumo maila handiak mantendu ahal izan dituzte. Bestalde, administrazio publikoen kontsumoa %1,2 hazi zen laugarren hiruhilekoan eta moteltzeko joera izan zuen urte osoan zehar.

## KONTSUMO ETA INBERTSIOAREN ADIERAZLEAK

Urte arteko aldakuntza tasak

|  | 2022  | 2023  | 2023  |      |       |       |
|--|-------|-------|-------|------|-------|-------|
|  |       |       | I     | II   | III   | IV    |
| <b>Kontsumoa</b>                         |       |       |       |      |       |       |
| Azalera eta kate handietako salmentak    | -1,4  | 0,2   | -0,4  | 0,7  | 1,2   | -0,4  |
| Txikizkako merkataritza indizea          | 2,9   | 0,9   | 1,9   | 0,9  | 0,7   | 0,3   |
| Kontsumo ondasunen ekoizpena             | 4,4   | -0,6  | 3,0   | 1,6  | -1,6  | -2,0  |
| Kontsumo ondasunen inportazioa           | 17,6  | 1,0   | 15,5  | -6,9 | 1,5   | -4,9  |
| Turismoen matrikulazioa                  | -8,8  | 5,9   | 18,7  | 1,7  | -6,7  | 11,1  |
| <b>Inbertsioa</b>                        |       |       |       |      |       |       |
| Ekipo ondasunen ekoizpena                | 9,3   | 3,2   | 4,7   | 0,0  | 4,4   | 7,3   |
| Ekipo ondasunen inportazioa              | 21,3  | 10,5  | 26,3  | 7,9  | 2,2   | 6,6   |
| Zamaketarako ibilgailuen matrikulazioa   | -13,5 | 15,4  | 8,3   | 19,5 | 18,0  | 16,1  |
| Etxebizitza berriak eraikitze oniritziak | -13,7 | -17,4 | -39,7 | 7,3  | -14,3 | -9,7  |
| Lizitazio ofiziala                       | 54,2  | -27,6 | 21,5  | 13,3 | -18,5 | -65,0 |

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustat, Aduana, Etxebizitza eta Hiri Agenda Ministerioa, Seopan eta Trafiko Zuzendaritza Nagusiaren datuetan oinarrituta.

Lehenago ere adierazi den bezala, kapital eraketa gordinak nabarmen moteldu zuen bere hazkunde erritmoa iazko laugarren hiruhilekoan, aurreko %2,6tik %1,6ra, eta tasa hori oso gertu dago oraindik aldi horretako ekonomiaren batez besteko hazkundetik. Moteltze horren arrazoi nagusiak hauek dira: energiak oraindik duen prezio garestia, interes tasa altuak, eskariaren ahulezia, eskaera berrien falta eta ziurgabetasun geopolitikoa. Hala eta guztiz ere, ekipamendurako ondasunetan egindako inbertsioa sendo mantendu zen (%2,5) eta laugarren hiruhilekoan urte osoko emaitzarik onena eskuratu zuen. Kontuan izan behar da inbertsio mota horrek lotura handiagoa duela kanpoko merkatuekin eta industriarekin; hain zuzen ere, gaur egun ahulezia handiena erakusten duten alderdietako bi dira, eta, beraz, ontzat eman behar da

Euskadin eginiko ekipamendu inbertsioaren emaitza. Bestalde, gainerako inbertsioan, eraikuntzan egindakoa barne hartzen baitu, urte arteko erritmoa %1,0ra jaitsi zen, eta, kasu horretan, urte osoko baliorik apalena jaso zen.

Kanpo eskariari dagokionez, EAEko BPGaren igoerari egin zion ekarpena positiboa izan zen, baina apala, bi hamarren ingurukoa. Kanpoarekiko merkataritza harremanek ahultasun nabarmena erakusten dute oraindik ere, nahiz eta laugarren hiruhilekoan, aurreko bietan ez bezala, urte arteko aldakuntza tasak positiboak izan ziren. Zehazki, ondasun eta zerbitzuen kanporako esportazioak (Estatuko gainerako erkidegoetara eta atzerrira) %1,6 igo ziren balio errealetan, eta inportazioak, berriz, %1,3. Unean uneko prezioetan, 2023ko esportazioak 63.950 milioi eurokoak izan ziren guztira, inoizko kopururik handiena, eta %3,6 hazi ziren aurreko urtearen aldean. Hobekuntza hori lehen hiruhilekoan lortu zen, eta, ondoren, beherakada txikiko bialdi igaro ziren, eta urtea %2,1eko susperraldi txiki batekin amaitu zen. Urteko inportazioak 65.942 milioi eurokoak izan ziren.

Aipatutako kopuruetatik ia erdia atzerriarekin merkaturatzen diren ondasunak dira. Laugarren hiruhilekoan, EAEko atzerrirako esportazioek 8.346 milioi euroko balioa izan zuten, 2022ko aldi berean baino %0,6 gehiago. Nabarmentzekoa da energiaren esportazioek bizitako susperraldia, hainbat hiruhilekotan beherakada handiak izan ondoren. Jaitsiera horiek saldutako kopuruen jaitsieraren eta prezioaren murrizketaren ondorio izan ziren. Laugarren hiruhilekoan, esportatutako energiaren balioak %7,3 egin zuen gora, eta kopuru hori ez zen nahikoa izan urteko batez bestekoa -%31,2ko tasa izatea eragozteko.

Euskadiko esportazio egituran pisu handiena duten bi atalek oso portaera ona erakutsi zuten, bai laugarren hiruhilekoan, bai 2023. urte osoan. Zehatzago adierazita, garraio materialaren salmenta 2.500 milioi eurora hurbildu zen laugarren hiruhilekoan, eta 9.400 milioi eurotik gorakoa izan zen urte osoan. Kopuru horiek %19,0tik gorako hazkunde tasak uzten dituzte, bai hiruhilekoan, bai urte osoan. Beste aldetik, makinen eta aparatuen esportazioak 1.606 milioi eurora iritsi ziren laugarren hiruhilekoan, eta 6.079 milioi eurora 2023 osoan. Atal horren aldakuntza tasak %7,2 eta %8,7 izan ziren, hurrenez hurren. Gainerako produktu multzoei dagokienez, plastikoa eta kautxuak bakarrik eskuratu zuen urte arteko tasa positiboa, produktu horietatik saldu ziren 513 milioi euroei esker, laugarren hiruhilekoan %3,4ko hazkunde tasa izan baitzuten.

Aitzitik, metal arrunten eta bere manufacturen esportazioak %18,2ko urte arteko jaitsiera erregistratu zuen iazko laugarren hiruhilekoan, aurreko bi hiruhilekoetako beherakadei jarraipena ematen diena, eta urteko guztizko saldoa -%12,7koa izan zen. Nekazaritzako produktuen esportazioak %17,6 murriztu ziren hiruhilekoan, produktu kimikoenak %18,6 eta

paperarenak %26,0. Aipatutako hiru talde horietatik, nekazaritzako produktuek bakarrik lortu zuten urteko tasa positiboa, apala izan arren (%2,9).

## ESPORTAZIOAK PRODUKTUEN ARABERA

Urte arteko aldakuntza tasak eta mila euro

|                        | 2022        | 2023       | 2023        |              |             |            |                  |
|------------------------|-------------|------------|-------------|--------------|-------------|------------|------------------|
|                        |             |            | I           | II           | III         | IV         | IV               |
| <b>GUZTIRA</b>         | <b>26,8</b> | <b>0,3</b> | <b>21,2</b> | <b>-11,0</b> | <b>-6,5</b> | <b>0,6</b> | <b>8.345.959</b> |
| Erregai mineralak      | 108,8       | -31,2      | -13,2       | -59,6        | -52,7       | 7,3        | 774.854          |
| Ez-energetikoak        | 22,2        | 3,4        | 24,1        | -6,9         | -0,8        | -0,1       | 7.571.105        |
| Nekazaritzakoak        | 35,1        | 2,9        | 52,6        | -1,6         | -14,9       | -17,6      | 447.390          |
| Kimikoak               | 29,4        | -11,6      | 38,7        | -32,7        | -20,9       | -18,6      | 232.607          |
| Plastikoak eta kautxua | 17,1        | 6,7        | 19,4        | 0,0          | 4,2         | 3,4        | 513.015          |
| Papera                 | 31,9        | -17,3      | 10,4        | -20,9        | -28,5       | -26,0      | 171.509          |
| Metal arruntak         | 27,3        | -12,7      | 4,3         | -20,8        | -14,6       | -18,2      | 1.497.611        |
| Makinak eta aparatuak  | 13,0        | 8,7        | 24,7        | -3,3         | 10,1        | 7,2        | 1.605.975        |
| Garraio materiala      | 18,5        | 19,1       | 37,9        | 8,0          | 12,8        | 19,9       | 2.492.634        |
| Gainerakoak            | 31,2        | 3,6        | 26,2        | -7,6         | 1,9         | -0,5       | 610.364          |

Iturria: Eustat.

Esportazioen helburu geografikoaren arabera, laugarren hiruhilekoan lortutako hazkunde txikia herrialde garatuetan egindako salmentetan kontzentratu zen, eta garapen bidean dauden herrialdeetara bideratutako kopurua murriztu egin zen. Horrela, esportatutako 8.346 milioi euroetatik 7.114 milioi (guztizkoaren %85,2) ELGAko herrialdeetara bideratu ziren, urte arteko %1,3ko hazkundearekin. Bestalde, garatzeko bidean dauden herrialdeetarako salmentek %3,4ko jaitsiera izan zuten, aurreko bi hiruhilekoetako beherakadei segida emanez.

Herrialde garatuetara bidalitako salmentek hobera egin bazuten ere, eurogunean egindakoek %3,1eko beherakada izan zuten, eta horrek erakusten du eremu ekonomiko horrek ahulezia bizi duela. Ondorioz, euroaren eremuak EAEko egitura esportatzailean duen pisua bi puntu murriztu da urtebetean, %52,7ra arte. Europan gehien saltzen diren produktuetako batzuek portaera positiboa izan zuten, hala nola garraio materialak (%15,3) eta makina eta aparatuak (%4,9), baina horien hazkunde metalen eta beren manufakturen salmentan (pisu handieneko ataletako bat baita) izandako atzerakadek (-%20,7) eta erregai mineralak (-%15,2) konpentsatu zuten.

## ESPORTAZIOEN HELMUGA

Urte arteko aldakuntza tasak eta mila euro

|                   | 2022        | 2023       | 2023        |              |             |            |                  |
|-------------------|-------------|------------|-------------|--------------|-------------|------------|------------------|
|                   |             |            | I           | II           | III         | IV         | IV               |
| <b>GUZTIRA</b>    | <b>26,8</b> | <b>0,3</b> | <b>21,2</b> | <b>-11,0</b> | <b>-6,5</b> | <b>0,6</b> | <b>8.345.959</b> |
| ELGA              | 27,1        | 1,4        | 25,0        | -10,3        | -7,2        | 1,3        | 7.113.737        |
| Eurogunea         | 27,3        | -3,4       | 16,6        | -11,8        | -13,3       | -3,1       | 4.397.363        |
| Alemania          | 22,2        | 2,9        | 19,2        | -2,9         | 0,9         | -4,3       | 1.178.379        |
| Frantzia          | 20,3        | -1,7       | 15,0        | -14,6        | -4,7        | -0,1       | 1.229.486        |
| Italia            | 29,8        | 4,4        | 16,1        | -10,2        | 9,7         | 4,7        | 466.094          |
| Erresuma Batua    | 17,0        | 3,0        | 41,2        | -15,6        | -8,5        | 3,9        | 506.725          |
| AEB               | 41,9        | 21,2       | 62,6        | -4,4         | 22,0        | 15,6       | 810.508          |
| ELGAtik kanpokoak | 25,2        | -5,3       | 1,2         | -15,1        | -2,3        | -3,4       | 1.232.222        |

Iturria: Eustat.

Euroaren eremura bideratutako EAEko esportazioen erdia Frantzian eta Alemanian amaitzen da, hau da, eremuko bi lokomotorretan, eta ia erdibana banatzen dira euskal produktuak. 2023ko laugarren hiruhilekoan, Frantziarako salmentak Alemaniarako salmentak baino zertxobait handiagoak izan ziren, baina herrialde batean zein bestean salmentek behera egin zuten. Frantzian, jaitsiera hori hamarren batera mugatu zen, eta metalak eta horien manufakturak izan ziren erantzule (-%27,6), merkatu horretara egindako esportazioetan pisurik handieneko partidetakoa bat baita. Pisu gutxiko beste talde batzuek ere, hala nola produktu kimikoen eta paperak, beherakada nabarmenak izan zituzten aldi horretan. Hala ere, garraio materialaren salmentak dinamismo handia erakutsi zuen eta %29,8ko hazkundera lortu zuen.

Alemaniarako esportazioak, neurri handi batean, garraio materialean kontzentratzen dira, %2,0ko hazkunde txikia izan baitzuen, eta, ondorioz, zazpi hiruhilekotan jarraian hazi zen. Plastikoen eta kautxuaren salmentak ere bilakaera positiboa izan zuen (%7,3), makinak eta aparatuen salmentak bezala (%5,6), baina metal arrunten eta beren manufakturen jaitsiera handiak (-%22,5) hobekuntza horiek konpentsatu zituen.

Italia gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari da EAEko enpresa esportatzaileentzat. Laugarren hiruhilekoan, salmentak %4,7 gehitu ziren, 466 milioi euroraino. Garraio materiala izan da salmenta horietako produkturik garrantzitsuena, eta %59,1 handitu da. Aitzitik, makinak eta aparatuek (-%5,5) eta metalak eta beren manufakturek (-%23,0) protagonismoa galdu dute merkatu horretara esportatzen duten egituran.

Euskal produktuen erosketa handitu duen beste herrialdeetako bat Erresuma Batua da, %3,9ko hazkundearekin, 507 milioi euroraino. Hiruhileko batzuetan, nekazaritzako produktuak izan ziren herrialde horretara egindako esportazioen buru, baina laugarren hiruhilekoan erdira jaitsi zen haien balioa. Aitzitik, garraio materialak urte arteko %33,3 egin zuen gora, eta herrialdera egindako esportazioetan pisurik handieneko taldea izatera igaro zen. Aipatu behar da, halaber, erregai mineralen salmenta laukoiztu egin zela aurreko urtearekin alderatuta, nahiz eta horien pisua nahiko apala den.

Europako kontinentetik kanpo, AEBetara bidalitako esportazioak %15,6 hazi ziren, eta erregai mineralak protagonismo handia izan zuten, %72,4 hazi baitziren, 237 milioi euroraino, azken bost urteetan hiruhileko batean lortutako zifrarik handiena. Garraio materialak ere garrantzi berezia du; izan ere, aurreko urteko salmentak bost aldiz biderkatu zituen, eta EAEko produktuek herrialdeari egindako salmentetan pisu handiena duen ataletako bat da. Aitzitik, metalen eta beren manufakturen salmentak heren bat murriztu ziren.

Lehenago ere adierazi den bezala, garapen bidean dauden herrialdeetarako esportazioen balioa %3,4 murriztu zen laugarren hiruhilekoan. Pisu handieneko hiru produktu multzoek aldakuntza tasa positiboak izan bazituzten ere, gainerakoen beherakada handiek zifra orokorra maila negatibora eraman zuten. Hala, makineriaren salmenta %4,2 igo zen, garraio materialarena %5,0 eta metalena eta manufakturena %9,9. Hala ere, produktu mineralen esportazioa %34,8 murriztu zen, laugarren jaitsiera jarraian. Gainera, nekazaritzako produktuen balio saldua %21,8 jaitsi zen laugarren hiruhilekoan.

EAEko produktuek garapen bidean dauden herrialdeetara egiten dituzten salmenten %15 inguru Txinara bideratzen dira eta bertako merkatuan salmentek %19,5eko hazkundera izan zuten. Garraio materialak makinak lekualdatu ditu herrialdera egindako esportazioen egituran pisurik handieneko atal gisa, baina, hain zuzen ere, makinak eta aparatuak izan dira emaitza on horren erantzuleak, %31,7ko hazkundera esker. Bestalde, garraio materiala %1,1 baino ez zen hazi aldi horretan. Metalen eta beren manufakturen salmentak ere pisua hartu du, aurreko urteko esportazioak aise bikoiztu baitzituen.

Laugarren hiruhilekoan inportatutako produktuen balioa aurreko urteko aldi berekoa baino %17,9 txikiagoa izan zen, 6.186 milioi euro guztira, azken zortzi hiruhilekoetako zifrarik txikiena. Hiru produktu talde nagusiek jaitsierak izan zituzten urte artekoetan. Zehazki, erregai mineralen erosketa %29,9 murriztu zen, hein batean prezioak behera egin zuelako, baina, batez ere, erositako kantitateak %21 inguru jaitsi zirelako. Halaber, metal arruntek eta beren manufakturek %15,0ko beherakada izan zuten, eta makinek eta aparatuek %1,1ekoa. Produktu talde batek ere ez zuen aldakuntza tasa positiborik erregistratu hiruhileko horretan.

Inportazioen jatorriaren arabera, jaitsierak antzera banatu dira bi eremu ekonomiko nagusien artean. Horrela, herrialde garatuetatik ekarritako inportazioak %16,2 murriztu ziren, eta garapen bidean dauden herrialdeetatik etorritakoak, berriz, %21,1. Erosketa guztien bi heren ELGAko herrialdeetatik datoz. Horien artean, EAEko ekonomiaren ondasunen hornitzaile nagusia Alemania da, euroaren eremuko inportazio guztien herena hornitzen baitu. EAEko enpresek herrialde horretan egindako erosketak makinaren eta aparatuen (-%12,1), metalen eta beren manufakturen (%13,1) eta garraio-materialaren (-%14,2) artean banatzen dira, baina nekazaritzako produktuek ere (%4,9) pisu esanguratsua hartzen ari dira.

## INPORTAZIOEN JATORRIA

Urte arteko aldakuntza tasak eta mila euro

|                | 2022        | 2023        | 2023        |             |              |              |                  |
|----------------|-------------|-------------|-------------|-------------|--------------|--------------|------------------|
|                |             |             | I           | II          | III          | IV           | IV               |
| <b>GUZTIRA</b> | <b>39,7</b> | <b>-8,9</b> | <b>11,1</b> | <b>-9,9</b> | <b>-15,8</b> | <b>-17,9</b> | <b>6.185.912</b> |
| ELGA           | 32,5        | -2,1        | 19,3        | -3,7        | -4,9         | -16,2        | 4.084.394        |
| Eurogunea      | 22,3        | 1,7         | 14,8        | -0,2        | 0,8          | -7,5         | 2.833.157        |
| Alemania       | 21,5        | 5,3         | 10,5        | 9,6         | 9,0          | -6,4         | 960.057          |
| Frantzia       | 21,8        | -13,1       | -3,0        | -19,8       | -11,4        | -17,1        | 519.155          |
| Italia         | 15,7        | 0,1         | 7,1         | -5,1        | 4,0          | -5,0         | 311.793          |
| Erresuma Batua | 42,5        | -39,8       | -52,7       | -37,3       | -1,8         | -42,3        | 125.646          |
| AEB            | 207,0       | -13,8       | 41,3        | -20,8       | -22,1        | -31,3        | 310.545          |
| ELGAtik        | 54,5        | -21,0       | -4,5        | -22,0       | -32,0        | -21,1        | 2.101.518        |

Iturria: Eustat.

EAEko esportazioen hazkunde txikiak eta inportazioen jaitsiera nabarmenak 2.160 milioi euroko merkataritza saldoa utzi dute laugarren hiruhilekoan, Euskadiren aldekoa. Kopuru hori 2.963 milioi euroko saldo ez-energetikotik eta -803 milioi euroko saldo energetiko negatibotik eratortzen da. Lehenengo bi kopuruak hiruhileko batean inoiz lortu diren handienak dira, eta hirugarrena, berriz, azken bi urteetako txikiena. Ohikoa denez, herrialde garatuekiko merkataritza harremanetan lortzen da aldeko saldoa, 3.029 milioi euroko superabita uzten baitu. Frantzia (710 milioi) eta AEBen (500 milioi) aldean lortutako superabitak nabarmentzen dira. Aitzitik, garapen bidean dauden herrialdeen aldean, merkataritza saldoa negatiboa da eta 869 milioi eurora iritsi zen, azken bi urteetako zifrarik baxuena. Brasilek eta Txinak hartzen dute defizit komertzial horren zatirik handiena.

## Prezioak, soldatak eta kostuak

Prezioen portaera aztertzen duten adierazleek beren aldakuntza tasetan moteltzeko joera izaten jarraitu zuten. Hain zuzen ere, eta analisia BPGaren deflatorearekin hasita, adierazle horrek moteltzeari eutsi zion nabarmen, lehen hiruhilekoan erregistratutako %5,2tik, serie historiko osoko baliorik handiena izan zen hartatik, laugarrenaren %3,3ra jaitsi baitzen. Hala ere, erregistroa aurreko hiruhilekoko baino hamarren bat handiagoa izan zen, batez ere kapital eraketa gordinaren deflatoreak (%2,3tik %3,1era) eta kontsumo pribatuaren deflatoreak (%3,1etik % 3,6ra) izandako hazkundeek eraginda.

Kontsumoko prezioei dagokienez, KPIak, 2023. urtea beheranzko joerarekin amaitu ondoren eta urtarrilean igoera puntual bat jaso eta gero, otsailean, argitaratu den azken datua hileko horretakoa baita, beheranzko bideari ekin zion berriro (%3,1). Emaidza horren arrazoi nagusiak elikagaien prezioen egonkortasuna (duela urtebeteko igoeraren aldean) eta elektrizitatearen prezioen jaitsiera izan ziren.

### KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

|                                  | 2022        | 2023        | 2023        |             | 2024        | Ekarpena    |
|----------------------------------|-------------|-------------|-------------|-------------|-------------|-------------|
|                                  |             |             | III         | IV          | Otsaila     |             |
| <b>Inflazio osoa (%100)</b>      | <b>8,0</b>  | <b>3,6</b>  | <b>3,0</b>  | <b>3,4</b>  | <b>3,1</b>  | <b>3,1</b>  |
| <b>Azpiko inflazioa (%84,6)</b>  | <b>5,1</b>  | <b>6,2</b>  | <b>6,2</b>  | <b>4,7</b>  | <b>3,9</b>  | <b>3,3</b>  |
| - Elikagai landuak (%15,4)       | 10,2        | 12,5        | 11,2        | 8,6         | 5,7         | 0,9         |
| - Industria ondasunak (%20,2)    | 4,7         | 4,7         | 4,9         | 2,6         | 1,8         | 0,4         |
| - Zerbitzuak (%49,0)             | 3,3         | 4,3         | 4,5         | 4,3         | 4,2         | 2,0         |
| <b>Hondar inflazioa (%15,4)</b>  | <b>19,5</b> | <b>-6,4</b> | <b>-9,3</b> | <b>-2,6</b> | <b>-0,8</b> | <b>-0,2</b> |
| - Landu gabeko elikagaiak (%6,5) | 10,8        | 7,3         | 6,3         | 6,7         | 5,3         | 0,3         |
| - Energia (%8,9)                 | 26,6        | -17,0       | -20,9       | -9,8        | -5,7        | -0,5        |

Iturria: INE.

Elektrizitatearen bilakaerari dagokionez, kostuen ehuneko handi bat zergek zehazten dute. Horrela, urtarrilaren 1etik, BEZ zergan, argindarraren ordainagiriari aplikatu beharreko tasa %5etik %10era igo da. Bestalde, elektrizitatearen gaineko zerga berezia, krisiaren aurreko baliora (%5,113) itzuli aurretik, pixkanaka igotzen joango da 2024an, lehendabizi %2,5era

pasatuz martxoaren amaierara arte, eta gero %3,8ra ekainaren 30era arte. Azkenik, ekoizpen elektrikoaren gaineko zerga pixkanaka %0tik %7ra igoko da.

Elikagaien atalean, ordea, BEZa %4tik %0ra murrizteko erabakiak bere horretan jarraituko du premia biziko elikagai freskoetan; pastetan, %10etik %5erako beherapena luzatuko da, eta, azkenik, olioari aplikatutako tasa %0ra jaitsiko da berriro. Inflazioaren aurkako neurrien hedapena ez zaio aplikatuko gas naturalari. Horren BEZa tasa oso murriztu batetik %10era pasatuko da 2024ko lehen hiruhilekoan, eta data horretatik aurrera %21eko jatorrizko baliora itzuliko da, krisi energetikoaren aurretik erregistratutakoa. Hala ere, haren prezioa nabarmen jaitsi da nazioarteko merkatuetan, eta 25 euro inguruan kokatu da MWh, duela ia urtebete 200 eurotik gora zegoen bitartean, gas naturalaren eskaintza altuko testuinguruan, ohi baino baldintza meteorologiko leunagoekin batera.

Beste aldetik, Brent motako petrolio gordinaren salneurria 85 dolarretik beherakoa izan da aurtengo lehen hilabeteetan, 2022. urtean zehar upeleko erregistratu ziren ia 104 dolarretatik urrun. LPEEtik kanpoko herrialdeen ekoizpena handitzeak eragindako petrolio eskaintzaren defizita arindu izanak eta eskaria hoztuko delako beldurrak ahalbidetu zuten prezio horiei eustea.

Hala eta guztiz ere, prezioak moteltzeko joera azkarragoa erakusten ari da eurogunean Euskadin baino, horrek ekar lezakeen lehiakortasun galerarekin. Hain zuzen ere, Eurostatek argitaratu dituen aurretiazko kalkuluen arabera, Europako inflazioa %2,6koa izan zen otsailean, EAEko tasa baino bost hamarren gutxiago (datuak ez dira guztiz homogeenak). Horrela, eurogunean iazko erdialdean hasitako beheranzko bidea finkatu da, abenduan izandako gorakadak aldi batez joera hori eten eta gero.

EAEko inflazioak erakutsi duen apaltzeko joera hori datozen hilabeteetara hedatzea aurreikusten da, energiaren eta elikagaien aldakuntza tasetan izandako beheranzko bilakaerari esker, aurreko aldiekin alderatuta. Hala eta guztiz ere, inflazioa kontrolatzeko hartu ziren neurriak bertan behera uzteak prezioak puntualki igotzea ekar lezake zerga-tasak igotzen diren hilabeteetan. Era berean, beheranzko itxaropenak, funtsean, Ukrainako eta Gazako Zerrendako gerra-gatazketan beste lurraldeetara ez hedatzearen mende daude, berriz ere energiaren prezioak igotzea eragingo bailukete.

Inflazioaren presioak ezagutu zuen murrizketa garrantzitsuagoa izan zen inflazio globalean azpiko inflazioan baino, azken hori zerbitzuen inflazioaren beheranzko erresistentzia handiagoak baldintzatu zuelako, zerbitzuek eskaera handiak baitituzte pandemiaren amaieratik. Beste aldetik, produktu energetikorik gabeko ondasun industrialek jaso zituzten tasarik txikiak.



Azkenik, elikagaien prezioak, oraindik aldakuntza tasa altuak jasotzen dituzten arren, moteldu egin ziren elikagaien lehengaien prezioen jaitsierari eta energiaren eta ongarrrien prezioen bilakaerari esker.

Aitzitik, hondar inflazioak balio negatiboak jaso ditu berriro, baina datu horiek ez dira 2023ko hilabete guztietan erregistratu zituenak bezain negatiboak, batez ere energiaren prezioen portaerak eraginda; izan ere, jaisten jarraitu bazuten ere, erritmo txikiagoan egin zuten behera. Aurreko hilabeteetako inflazioaren gorakada arintzeko hartutako neurrien amaierak eragin zuen moderazio hori.

## EAE-KO KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEA

Urte arteko aldakuntza tasak

|  | 2022       | 2023       | 2023       |            |            |            | 2024       |
|--|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|
|  |            |            | I          | II         | III        | IV         | Otsaila    |
| <b>Indize orokorra</b>                 | <b>8,0</b> | <b>3,6</b> | <b>4,9</b> | <b>3,3</b> | <b>3,0</b> | <b>3,4</b> | <b>3,1</b> |
| Janariak eta alkohol gabeko edariak    | 11,2       | 11,1       | 15,3       | 11,4       | 9,9        | 8,3        | 5,8        |
| Edari alkoholdunak eta tabakoa         | 4,3        | 7,0        | 7,6        | 7,6        | 7,0        | 5,8        | 4,7        |
| Jantziak eta oinetakoak                | 2,8        | 2,0        | 2,9        | 1,5        | 2,3        | 1,5        | 1,4        |
| Etxebizitza, ura, elektrizitatea, gasa | 15,8       | -12,0      | -11,1      | -12,1      | -16,7      | -7,1       | -3,5       |
| Etxeko hornidura                       | 6,6        | 6,0        | 8,0        | 7,2        | 5,4        | 3,7        | 2,4        |
| Medikuntza                             | 0,6        | 2,3        | 1,9        | 2,8        | 2,4        | 2,3        | 2,8        |
| Garraioa                               | 11,2       | 0,3        | 1,3        | -2,9       | 0,9        | 2,4        | 3,5        |
| Komunikazioak                          | -1,2       | 3,2        | 2,4        | 2,5        | 4,4        | 3,3        | 0,4        |
| Aisia eta kultura                      | 3,2        | 4,6        | 3,5        | 4,8        | 7,1        | 3,2        | 3,0        |
| Irakaskuntza                           | 1,6        | 1,9        | 1,9        | 1,9        | 1,6        | 2,1        | 2,2        |
| Hotelak, kafetegiak eta jatetxeak      | 6,0        | 6,2        | 7,0        | 6,4        | 5,8        | 5,8        | 5,1        |
| Besteak                                | 3,8        | 5,4        | 5,4        | 6,1        | 5,6        | 4,7        | 4,5        |

Iturria: INE.

Azterketa indize orokorra osatzen duten taldeetan zentratuz, adierazi behar da, beste behin ere, elikagaien eta alkoholik gabeko edarien taldea izan zela inflazio tasa altuena jaso zuena, nahiz eta egia den beheranzko joera nabarmena izan zutela, 2022ko otsailaz geroztik tasarik txikiena izan baitzuten. Era berean, garraio taldearen prezioen gorakada nabarmendu behar da, hiru puntu eta lau hamarren igo baitzen, %0,1etik %3,5era, erregaien prezioen bilakaerak eraginda. Aitzitik, etxebizitza aldaketa tasa negatiboetara itzuli zen (-%3,5), elektrizitatearen prezioen jaitsieragatik.

Bestalde, industriako prezioek jaisten jarraitu zuten eta aldakuntza tasa negatiboetan segitu zuten, nahiz eta egia den beheranzko joera moteltzen joan dela, azaroan (-%6,8) 2009ko urritik izandako baliorik baxuena erregistratu ondoren. Zehazki, urtarrilean, datuak eskura ditugun azken aldian, IPRIa -%5,2an kokatu zen, energia sektorean izandako jaitsiera nabarmenean oinarrituta (-%24,9); izan ere, tarteko ondasunen multzoarekin batera (-%0,2) tasa negatiboak izan zituen bakarra izan zen.

Hitzarmen kolektiboen bilakaerari dagokionez, Euskadin negoziatu diren eta indarrean dauden hitzarmenen batez besteko soldata-igoera %4,2 izan zen 2023ko amaieran. Bilakaera horri esker, enplegatuek galdutako erosteko ahalmenaren zati bat berreskuratu zuten, urteko batez besteko inflazioa sei hamarren beherago geratu baitzen. Soldata-igoerak 2023. urte osoan sinatutako 321 hitzarmenetan jaso ziren, eta langileen ia %64ri eragin zieten. Ehuneko hori izan zen azken urteetako baliorik handiena, 2021eko (%45,9) eta 2022ko (%45,4) erregistroak nabarmen gaindituz.

#### HITZARMENETAN ADOSTUTAKO SOLDATA IGOERAK

Urte arteko aldakuntza tasak

|                                | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 |
|--------------------------------|------|------|------|------|------|
| Indarrean dauden hitzarmenak:  | 2,0  | 1,7  | 1,2  | 4,1  | 4,2  |
| - Urtean zehar sinatutakoak    | 2,3  | 1,2  | 1,1  | 4,1  | 4,7  |
| Negoiazio esparruaren arabera: |      |      |      |      |      |
| - Sektoreko hitzarmenak        | 2,1  | 1,7  | 1,0  | 3,9  | 4,3  |
| - Enpresako hitzarmenak        | 1,8  | 1,7  | 1,9  | 4,7  | 4,1  |

Iturria: Lan Harremanen Kontseilua.

Azkenik, langile bakoitzeko lan kostuek, INEk berriki argitaratu dituen datuen arabera, aurreko hiruhilekoetan baino igoera txikiagoarekin amaitu zuten urtea. Zehazkiago adierazita, urtea %5,0ko aldakuntza tasekin hasi zen eta bigarren hiruhilekoan %6,9ra igo ondoren, igoerak moteltzeko joera hasi zen, eta azken hiruhilekoko datua %2,2an kokatu zen. Urteko batez bestekoak %4,5eko balioa jaso zuen, azken urteetako bigarren tasarik altuena baita, eta 2021ean erregistratutakoa baino lau hamarren txikiagoa. Azkenik, hitzartutako orduak hirugarren hiruhilekoko jaitsieratik berreskuratu ziren bitartean (%0,2), benetan lan egindako orduak, aurreko hiruhilekoan aldakuntza tasa positiboa izan ondoren, balio negatiboetara itzuli ziren (-%1,4).

## LAN KOSTUAK

Urte arteko aldakuntza tasak

|                             | 2022 | 2023 | 2022 |     | 2023 |      |      |
|-----------------------------|------|------|------|-----|------|------|------|
|                             |      |      | IV   | I   | II   | III  | IV   |
| Lan kostu guztiak langileko | 2,7  | 4,5  | 5,4  | 5,0 | 6,9  | 4,2  | 2,2  |
| - Soldata kostua guztira    | 2,9  | 3,7  | 6,2  | 4,3 | 6,3  | 3,9  | 0,7  |
| - Bestelako kostuak         | 2,2  | 6,9  | 2,9  | 7,1 | 8,6  | 5,0  | 6,8  |
| Lan kostu guztiak orduko    | 2,6  | 5,0  | 5,1  | 3,4 | 10,0 | 3,5  | 3,6  |
| - Soldata kostua guztira    | 2,8  | 4,2  | 5,9  | 2,6 | 9,3  | 3,2  | 3,1  |
| - Bestelako kostuak         | 2,2  | 7,3  | 2,6  | 5,5 | 11,7 | 4,3  | 8,3  |
| Adostutako lan orduak       | -0,5 | 0,1  | -0,5 | 0,1 | 0,3  | -0,3 | 0,2  |
| Benetan lan egindako orduak | 0,4  | -0,5 | 0,3  | 1,6 | -2,8 | 0,6  | -1,4 |

Iturria: INE.

## Arlo publikoa

EAEko foru ogasunen diru bilketak marka historiko berria hautsi zuen iaz. Hirugarren urtea jarraian da errekorra lortu dela. Zehatz-mehatz adierazita, 2023. urtean, foru aldundiek 18.212 milioi euro lortu zituzten guztira, aurreko urtean bildutako kopurua baino 1.082 milioi euro gehiago eta %6,3ko hazkunde tasa lortuta. Datu horrek erakusten du aurretik egindako zenbatespen guztiak nabarmen hobetu direla. Izan ere, 2022ko urrian, 2023rako diru-sarreraren aurrekontuak gauzatu zirenean, %5,5eko hazkundera finkatu zen bilketan, eta azken urtea ixtetik gertu, berriz, iguera %5,7ra iritsiko zela aurreikusi zen.

Aipatu diren zifra horiei esker, EAEko ogasunen diru sarrerak 2023ko BPG nominalaren ia %20ren baliokideak izan ziren, aurreko urtekoaren antzeko ehunekoa baita, 2023ko BPG nominala %5,8 hazi baitzen. Zerga bilketak izan zuen hobekuntza, batez ere, EAEko ekonomiak erakusten duen sendotasunak azaltzen du, inflazioan hautematen diren tentsioak motelduz doazen testuinguru batean.

Kontsumoko prezioek izan duten goranzko bilakaerari dagokionez, Eusko Jaurlaritza KPlaren eragina murrizten saiatu zen, urtea %3,1ean amaitu baitzuen, PFEZaren zergapetze taulen deflatazioa %2 murriztuz. Era berean, PFEZaren bilketan (%9,0 igo zen), garrantzi nabarmena izan zuten lan errendimenduengatik eginiko atxikipenek, enpleguaren hobekuntzari eta soldata igoerari esker.

## TRIBUTU ITUNDUEN BILAKAERA (urtarrila-abendua)

Mila euro

| TRIBUTUAK   | Diru bilketa      |                   |              |
|---|-------------------|-------------------|--------------|
|   | 2022              | 2023              | % Ald. 23/22 |
| PFEZ  | 6.497.698         | 7.085.533         | 9,0          |
| Sozietateen gaineko zerga                         | 1.351.267         | 1.635.679         | 21,0         |
| Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga           | 108.464           | 179.940           | 65,9         |
| Oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga           | 152.753           | 159.013           | 4,1          |
| Ondarearen gaineko zerga                          | 169.734           | 176.178           | 3,8          |
| Kreditu entitateen gordailuen gaineko zergak      | 28.835            | 29.738            | 3,1          |
| Energia elektrikoaren ekoizpenaren gaineko zerga  | 641               | -266              | -            |
| <b>ZUZENeko ZERGAK GUZTIRA</b>                    | <b>8.309.391</b>  | <b>9.265.815</b>  | <b>11,5</b>  |
| BEZ   | 6.921.389         | 6.930.344         | 0,1          |
| Ondare eskualdatzeen gaineko zerga                | 178.482           | 168.020           | -5,9         |
| Egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga      | 45.360            | 36.464            | -19,6        |
| Garraio bide jakin batzuen gaineko zerga bereziak | 24.813            | 27.254            | 9,8          |
| Fabrikazioaren zerga berezia                      | 1.351.575         | 1.434.655         | 6,1          |
| Elektrizitatearen gaineko zerga berezia           | 15.548            | 10.685            | -31,3        |
| Aseguru sarien gaineko zerga                      | 112.458           | 118.237           | 5,1          |
| Joko jardueren gaineko zergak                     | 4.621             | 6.607             | 43,0         |
| Berotegi efektuko gasen gaineko zergak            | 4.465             | 4.884             | 9,4          |
| Finantza-transakzioen gaineko zerga               | 109.515           | 74.526            | -31,9        |
| Zenbait zerbitzu digitalen gaineko zerga          | 17.154            | 11.587            | -32,5        |
| Zaborte gietan hondakinak uztearen gaineko zerga  | -                 | 10.729            | -            |
| Iraungitako zergak                                | -1                | 2                 | -            |
| <b>ZEHARKAKO ZERGAK GUZTIRA</b>                   | <b>8.785.378</b>  | <b>8.833.994</b>  | <b>0,6</b>   |
| <b>TASAK ETA BESTE. SARRERAK GUZTIRA</b>          | <b>35.947</b>     | <b>112.678</b>    | <b>213,5</b> |
| <b>TRIBUTU ITUNDUAK GUZTIRA</b>                   | <b>17.130.717</b> | <b>18.212.486</b> | <b>6,3</b>   |

Iturria: Foru aldundiak.

Analisia zuzeneko zergekin jarraituz, nabarmendu behar da, era berean, sozietateen gaineko zergaren goranzko bilakaera, diru bilketa %21,0 handitu baitzen. Gorakada garrantzitsu hori enpresa ezberdinen negozio marjinak berrezartzeko joerak eragin zuen, jardueraren susperraldia sendotu baitzuten, pandemiak eragindako mozkinetan izandako jaitsieraren ondoren.

Hala ere, zeharkako zergapetzeak ez zuen hobekuntza sintoma handirik erakutsi, eta ia egonkortu egin zen 2022tik. Hala, BEZa %0,1 baino ez zen igo, inflazioaren ondorioak arintzeko Espainiako Gobernuak onartutako salbuespenezko neurriengatik. Neurri horiek, hala nola elektrizitatearen, gasaren eta oinarritzko elikagaien fakturan BEZ tasa murriztea, bilketa txikiagoa ekarri zuten.

Azkenik, zerga bereziak (%6,1), BEZaren kasuan bezala, hazkunde erritmoa moteltzen hasi ziren, kontsumo pribatua moteldu egin zelako aurreko urteko gehikuntza tasa handiaren aldean. Hala eta guztiz ere, gorakada aurreikusi zena baino handiagoa izan zen, foru aldundiek 2023an Estatuari ordaindutako kopuruak 2022koak baino 99,4 milioi gutxiago izan zirelako. Izan ere, doikuntza hori kontuan hartuko ez balitz, zerga berezien diru bilketan %0,9ko jaitsiera txiki bat erregistratuko zen, batez ere pisu handiena zuen kapitulua, hots, hidrokarburoena, %2,4 murriztu zelako.

Era berean, kapitulu honi dagokionez, nabarmendu behar da 2023 izan zela ingurumen helburuetarako bi zerga berri bildu ziren lehen urtea: plastikozko ontzi ez-berrerabilgarrien gaineko zerga (25,4 milioi euro, Estatuarekiko doikuntza barne) eta hondakindegietako hondakinen biltegien gaineko zerga (10,7 milioi euro), Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoan hitzartuak 2022ko azaroan.

## **Arlo finantzarioa**

2023ko azken txanpan, Fedek eta Europako Banku Zentralak (EBZ) erreferentzia tasak aldatu gabe mantentzea erabaki izana pizgarria izan zen inbertsiogileentzat, eta interbentzio tasen murrizketak deskontatzen hasi ziren, eta arriskuarekiko gosea berreskuratu zuten. Horrek mugimendu handia eragin zuen merkatuetan eta mundu osoko burtsak gorantz bultzatu zituen; horri esker, 2023a irabazi handiekin itxi ahal izan zen, bai errenta aldakorrean, bai errenta finkoan. Arriskuarekiko gose hori 2024ko lehen hilabeteetan mantendu zen, ekonomia aurreratu nagusietako lurreratze leunaren erretorikan oinarrituta eta argitaratutako emaitza makroekonomiko onetan eta enpresen mozkin handietan babestuta.

Hala ere, otsailaren amaieran, herrialde batzuetako prezioen ustekabeko gorakadaren eta kontsumo pribatuak beste batzuetan erakutsitako ahuleziaren aurrean, banku zentral nagusiek zehurtiaz jokatu zuten berriro. Hala, nahiz eta goranzko bideari eutsi ez, bai Fedek bai EBZk inflazioa eta bilakaera ekonomikoa kontrolatzen jarraitzeko beharra nabarmendu zuten, eta bi erakundeek kezka agertu zuten interes tasak azkarregi jaisteko arriskuari buruz. Adierazpen

horien ondorioz, inbertitzaileek atzeratu egin zituzten erreferentzia tasen lehen beherapenei buruzko aurreikuspenak, eta hoztu egin zituzten merkatuak.

## ADIERAZLE MONETARIO ETA FINANTZARIOAK (I)

|   | 2022     | 2023     | 2023     |          |          | 2024     |          |          |
|---|----------|----------|----------|----------|----------|----------|----------|----------|
|   |          |          | Urria    | Azar.    | Aben.    | Urt.     | Otsa.    | Mar.(*)  |
| <b>Interes tasa ofizialak (%)</b>                   |          |          |          |          |          |          |          |          |
| Europako Banku Zentr.                               | 2,5      | 4,5      | 4,5      | 4,5      | 4,5      | 4,5      | 4,5      | 4,5      |
| Erreserba Federala                                  | 4,25-4,5 | 5,25-5,5 | 5,25-5,5 | 5,25-5,5 | 5,25-5,5 | 5,25-5,5 | 5,25-5,5 | 5,25-5,5 |
| Japoniako Bankua                                    | -0,10    | -0,10    | -0,10    | -0,10    | -0,10    | -0,10    | -0,10    | -0,10    |
| Ingalaterrako Bankua                                | 3,5      | 5,25     | 5,25     | 5,25     | 5,25     | 5,25     | 5,25     | 5,25     |
| Txinako Banku Popular                               | 3,65     | 3,45     | 3,45     | 3,45     | 3,45     | 3,45     | 3,45     | 3,45     |
| Brasilgo Banku Zentr.                               | 13,75    | 11,75    | 12,75    | 12,25    | 11,75    | 11,75    | 11,75    | 11,75    |
| <b>10 urteko zor publikoaren errentagarritasuna</b> |          |          |          |          |          |          |          |          |
| Alemania  | 0        | 0        | 0        | 0        | 0        | 0        | 0        | 0        |
| Espainia  | 109      | 97       | 108      | 102      | 97       | 93       | 88       | 78       |
| Grezia  | 203      | 105      | 136      | 126      | 105      | 108      | 98       | 78       |
| Erresuma Batua                                      | 111      | 151      | 171      | 173      | 151      | 164      | 172      | 169      |
| Italia  | 213      | 198      | 192      | 178      | 168      | 157      | 143      | 120      |
| AEB   | 127      | 184      | 210      | 189      | 184      | 179      | 184      | 186      |

(\*)Martxoaren 15eko datuak.  
Iturria: Espainiako Bankua.

Igurikimenean atzerapen horrek eragin handia izan zuen errenta finkoko merkatuetan, eta, zehazki, zor subiranoaren merkatuetan, otsailaren amaierara arte egonkortasun orokorreko testuinguru batean eboluzionatu baitzuten. Izan ere, 10 urterako bonu estatubatuarrei eskatutako errendimendua %4,3tik gorakoa izatera iritsi zen, otsaileko kontsumoko prezioen inflazioa aurreikuspenak baino zertxobait handiagoa izan ondoren, eta kezka areagotu zuen Erreserba Federalak ezin izango ote dituen interes tasak murriztu inbertitzaileek espero bezain laster.

Euroaren eremuak, EBZk tasak murrizteko duen errezeloak eraginda, kurba subiranoen mugimendua AEBetan erregistratutakoaren oso antzekoa izan zen. Zehatz-mehatz adierazita, 10 urterako bonu alemaniarrari eskatutako errentagarritasunak 25 oinarrizko puntu inguruko

